

MAIATZAREN LEHENA 2015

PREKARIETATEARI EZ!

Mugimendu sindikalarentzat erronkaz beteta dagoen oraina eta geroa ikusirik, Maiatzaren lehen honetan ELAk lehenik gorazarre egin nahi die bere militanteei, hauek euskal langile-klasearen interes eta helburuak defenditzeko prest dagoen proiektuarekin agertzen duten konpromisoa dela eta; hain zuzen, militanteon lanari esker proiektu horrek ELAren gehiengoa berritu ahal izan du hauteskunde sindikaletan. Bere nortasunaz harro dagoen militantzia hau altxor bat da, kosta ahala kosta zaindu beharrekoa.

Klase harrotasuna. Borroka sindikala ez da filme askotan agertzen eredugarri diren beste borroka batzurekin bat eginda (esaterako, gay eta lesbianen eskubideen aldekoa). Pride (Harrotasuna) da filme bakan horietako bat. Bere protagonistek etsai beraren aurkako borrokan dihardute: identitate kolektiboak suntsitzeko eraso sistematikoa. 1984ko Ingalaterrean Margaret Thatcherri aurre egiten diote. Gaur European apenas dagoen ideologia hartatik elikatu ez den gobernurik. Aipatutako filmeak irakasten du elkarrekin lan egiten, harreman-kodeak aztertzen, erdipurdiko bideak edo norberekoikeria baztertzen, borrokak bat egiten... Erakusten du itxuraz desberdinak diren helburu sektorialekin etsai beraren aurkako borrokan berdinak izan gaitzkeela. Filme honek mezu alai bat ematen digu, konpromisoaren eta borroka kolektiboaren balioa. Gu ere ELAn borrokan ari gara solidaritatea inoiz baino biziagoa izan dadin, borroka kolektiboa iraganeko kontua izan ez dadin. Harrotasunez: Pride.

Sindikatuak indarra ematen digu. Ezinbestekoa da analizatzea gobernuak eta instituzioek kapitalaren nahiekin nola ezkontzen diren. Kapitalaren interesak politikan ondo ordezkatzuta daude, eta bitartean kapitala gu pobretuz gozaten ari da. Bere asmo bakarra diru gehiago pilatzea da. Hala da, desberdintasuna gero eta handiagoa delarik, gobernuak joera hori geldiarazteko erabaki oro baztertzen dute. Gobernuak onartu egiten dute debate politikoa kapitalak nahi duen mugetan geratzea, horrela politika areago antzerki kutsuko zerbait bilakatzen delarik. Gero eta antzerki eta propaganda gehiago, ezartzen dituzten doitze

politikak ezkutatzeko. Gainera, gobernuak pertsonarik ahulenen babeserako tresnen aurka ekiten diote: negoziazio kolektiboa, fiskalitate progresiboa, zerbitzu eta prestazio publikoak, demokrazia, parte hartze soziala... Besterik egiten ez badugu, instituzioak beste politika bat egitera derrigortzen ez baditugu, hazkunde ekonomikoak desberdintasun handiagoa ekarriko du.

Haien helburu nagusia prekariedade laboral eta soziala da. Izan ere, prekariedadeari esker askoz diru gehiago irabazten baitute, gure jendea azpiratuta daukate eta gure nortasuna, kolektibo gisa, lausotuta geratzen da. Horretan datza gaur egun neoliberalismoa: individualismo areagotuan. Individualismoak lasai jarduteko aukera ematen die, eta defentsa kolektiboak, aldiz, mugak jartzen dizkie. Prekariedade laboral eta sozialera edota bazterketara zigortzeak pobretu ez ezik diziplina ezartzen du. Euren nahi dute mugimendu sindikalak men egitea sistema kapitalistaren diktatuei, sistema honek bere aurpegiak lasgarriena erakusten duen honetan.

Protesta sindikal eta sozialak, kriminalizatuta. Baina gainera gatazka sozialaren adierazpideak ez zaizkie gustatzen; horregatik ezartzen dituzte kontrol sozialerako eta protestak kriminalizatzeko legeak. Badakite sindikalismo antolatua beren asmoetarako oztopo bat dela, eta ez dute onartzen. Sindikalismoak badaki indarren banaketa oso desberdina dela; horregatik berresten du sindikatua, langile-klase antolatua, dela indarra ematen diguna. Hori da ELAk egoera honetan bere militanteei helarazi nahi dien mezua.

Nahi dute onartzea beren politikak ez duela alternatibarik. Lan munduan esplotazioa inposatzeko, enplegua galtzen dutenentzako prestazioak mozteko eta kontratu ezin kaskarragoak onartzera derrigortzeko. Bien bitartean, publikoa den guztiari eraso egiten diote, interes pribatuek negozio aukera izan dezaten. Gaur ELAren ustez sindikalismo abertzaleak gure herriaren burujabetzari egin diezaiokeen ekarpenik nagusienetakoa justizia soziala eta solidaritatea defenditzea da.

Gora sindikalismoa! Gora Euskal Herria Askatuta!

**MITINA, 11:45etan.
MANIFESTAZIOA, 12:15etan.
Jesusen Bihotza. Bilbo**

ELA
EUSKAL SINDIKATUA